

Papoa tente

IRRINTZIKA ETORRI DA, tximisten irrintzika, uda sapa. Eta bero hezeak harrotu egiten du, baita makurrena ere. Berozale amorratua izaki, gaztainondoa lorez orain harrotzen da, gainezka dario. Bi lore ditu, arra eta emea. Hostajearen gainean, arren zima larua harro erakusten du. Haizeari eskainitako kalparrak lore horien polena hedatzea erraztuko du. Hostopean babestuta ireki diren lore eme lotsatiak ernalduko ditu polen horrek.

Nabarmena da gaztainondoaren harrotasuna. Urrutira ere erraz igarriko diozu: ardi-larrua jantzi duen otsoaren itxura du, zuhaitz berdeen artean, poteko horail oxigenatutako ileordea jantzita... Horrelakoak erabiltzen dituenak usainaz ere urrutitik tankera hartzea nahi. Eta gaztainondoaren lore arrari ez dario nola halako usaina: lodi, sarkor, mingatz, sudur mintz askoren iritziz kiratsetik hurbil. Umetako oroitzapena dakarkit gaztainondoak, urtero: gure etxepean zen ile-apaindegitik, batez ere larunbatetan, ile pintatu berria kardakarda egin eta laka usainezko

amaierarik gabeko arrastoa utziz ateratzen ziren emakumeak. Asteburuko lanei ekitera, dirua gordezten zuten papoa tente asko!

Gaztainondoaren lorearen usaina ez da, baina, emearen aiekakoa, arrarena baizik: gizonaren hazi edo espermarekin lotzen da. Usaina halakoa omen du. Eta "omen" hori kendu egin beharko nuke, jende askok egindako aipamena izateaz gain, neronek ere hala uste baitut. Botanikaren amona den Lineok ere hala zioen: intxusak, ezkiak eta gaztainak esperma usain nabarmena duten loreak zabaltzen dituzte.

Sadeko Markesak gaia zorrotz asko azaltzen duen ipuina idatzi zuen gustura asko biziko nuen 1788 hartan: *La fleur de châtaignier*. Bertan, apaiz gazte bat saiitzen da emakume nerabe bati azaltzen gaztaina lorearen usainak gogora zer dakarkion. Donatien Alphonse François markesak apaizaren larrutarako gogoa sotanapean bista askoan azaltzen du, ezkontza eskaerak gaztainondoan azpian egiten zirela esanarazi besterik ez zionean...



PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN

Gaztainondoa Ataunen.

Gaztainondoaren loreak gizonaren haziak bezala poliamina berezi bat du, espermidina, alegia. Landareetan loreen eta fruituen bilakaeraren suspertzailetako bat da. Animaliotan, hazkundean eta zelularen heltzean zeresan handia du... ■



Bare festa

Aurten adina barraskilo eta, batez ere, bare ez dut sekula ezagutu. Hau da gasteropodo desdetxa, hau da festa. Ur festak dakar bare dantza. Eguneko ordu beroetan izan ezik, hankaperaino hurbiltzen dira, lasai-poto asko. Horra etxe aurreko klematisaren (*Clematis sp.*) petalo ubelak dastatzen.

Bareak ateratzeko pozoirik gabeko era erraz bat bada: egur ezpalak. Landareen azpian ezpala jarri ondros. Bertan hartuko dute habia lurreko kakalardo, nematodo eta beste laguntzaile ugari. Horiek bareak eta beren arrautzak jan edota bizkarroi jarriko zaizkie. Era berean, ezpala usteltzen doan eran, ongarrri ederra da. Beno, ezpala, porroxka, zoztorra... ■